

ETXEBARRIKO LEZAMA-LEGIZAMON INDUSTRIALDEKO KUDEAKETA- ETA JARDUKETA- PLAN INTEGRALA LANTZEA

Posted on 08/01/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Gobernantza eredua](#), [Hiriko-ingurunea eta industria-ingurunea naturalizatzea](#), [Industrialdeen berroneratzea](#)

Lezama-Legizamon industrialdeak, Etxebarriko udalerrian kokatua, NAIDERen laguntza du Kudeaketa eta Jarduera Plan Integral bat lantzeko, poligonoa kontserbatu, hobetu, egokitu eta berroneratzeko helburuarekin.

Plana egiteko prozesuan, enklabearen analisi/diagnostiko multidimentsionala, poligonoaren gobernantza-ereduaren definizioa, hedatu beharreko jarduera zehatzen identifikazioa eta inplementaziorako ibilbide-orria egingo dira.

Lezama-Legizamon industrialdea 1977an sortu zen, Nerbioi ibaiaren ertzean, Etxebarriko hegomendebaldean, eta 307.754 m²-ko azalera du. Gaur egun, 110 enpresa baino gehiago ditu industria- eta zerbitzu-sektoreetan. Poligonoaren barne-antolaketa jabeen erkidego baten bidez gauzatzen da, eta Lezama-Legizamon poligonoko Kontserbazio Erakundeak kudeatzen du.



Lezama-Legizamon poligonoaren kokapena, Etxebarriko udalerrian.

